

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

NEKAZARITZA SAILA

Lurzati bateratzearen erabakia (Gaubea aldekoa, 2. fasea - 1. sektorea) onartzea

Honako hau jakinarazten zaie Gaubea aldeko lurzati bateratzeaz (2. fasea, 1. sektorea) interesa duten guztiei (haren onura publikoa adierazi zen Diputatuen Kontseiluaren uztailaren 20ko 38/2010 Foru Dekretuaren bidez):

Lehenengoa. Nekazaritza Zuzendaritzak onartu du Gaubea aldeko lurzati bateratzeren Erabakia (2. fasea, 1. sektorea), aldaketa egokiak sartu eta gero proiektu horren inkestaren ondorioz, zeina 1973ko urtarrilaren 12ko Legeak, Nekazaritza Eraberritze eta Garapenarenak, 197. artikuluan xedatutakoaren arabera egin den, eta ebatzi du hura argitara ematea aipatutako legearen 210. artikuluan ezartzen den moduan.

Bigarrena. Lurzati bateratzearen erabakia jendaurren egongo da Gaubeako Udalaren lokaletan hogeita hamar egun baliodunez, abisu hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Hirugarrena. Hogeita hamar egun balioduneko epe horren barruan, gora jotzeko errekurtsua aurkeztu ahal izango zaio Nekazaritza Saileko foru diputatuari, Arabako Foru Aldundiaren Erregistro Orokorrean aurkeztutako idazki bat dela medio. Ohartarazten da ezen, 1973ko urtarrilaren 12ko Legeak, Nekazaritza Eraberritze eta Garapenarenak, 214. artikuluan xedatutakoaren arabera, lurzati bateratzearen erabakiaren aurka egin daitekeela bakarrik ez badira betetzen hura gertatzeko eta argitara emateko agindutako formalitateak, edo ez bada bateratzearen oinarrien arabera.

Gainera, errekurtsogileek kontuan eduki beharko dute, Nekazaritza Eraberritze eta Garapenaren Legearen 218. artikuluan xedatutakoaren arabera, bere ebazpenerako lurraren aditu azterketa beharrezkoa duen edozein errekurtsu bakarrik onartuko dela izapidetzeko baldin eta Garapen Zerbitzuak alegatu diren egitateak egiaztatzeko behar diren aditu jardunen kostua ordaintzeko beharrezkoa deritzon diru kopurua gordailatzen bada Aldundiaren Finantza Kudeaketa Zerbitzuan, errekurtsu berean azterketa horri espresuki uko egin ezean. Errekurtsuaren ebazpenean, erabakiko da gordailatutako diru kopurua itzul dakiola interesdunari, horren aditu gastuak sortu ez badira edo azkenean errekurtsuaren baiespen osoa edo partzialaren oinarri bezala balio duen aditu probari badagozkie.

Vitoria-Gasteiz, 2019ko urtarrilaren 23a

Nekazaritza Garapenerako Zerbitzuaren burua
JOSÉ ANTONIO OCIO ORIVE